



1- IKUSI AURRETIK

1.1 Isilik mesedez!

 Hemen dituzu jendea biltzeko zenbait toki:

Merkataritza-gunea, eliza, ospitalea, zinema, liburutegia, diskoteka, futbol-zelaia, ikasgela, taberna, antzokia, gaztetxea, itxaron-gela, meskita...

Batzuk zaratatsuak dira. Beste batzuk isilak. Antolatu tokiak lauki honetan:

 <p>Toki zaratatsuak</p>	 <p>Toki isilak</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Taberna • • • 	<ul style="list-style-type: none"> • Ospitalea • • •

 Adostu erantzunak lagunarekin.

2- IKUSI BITARTEAN

2.1 Zertaz ari dira?

 Josu eta Amaia liburutegian daude.

<p>Zertaz ari dira hitz egiten?</p> <p><input type="checkbox"/> Irakasleaz ari dira.</p> <p><input type="checkbox"/> Egin duten azterketaz ari dira.</p> <p><input type="checkbox"/> Beraien taldeko ikasleaz ari dira.</p>	<p>Nola dago Josu? (erreparatu aurpegiko keinuei)</p> <p><input type="checkbox"/> Oso harrিতuta dago</p> <p><input type="checkbox"/> Triste eta kezkatuta</p> <p><input type="checkbox"/> Oso haserre</p>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

 Adostu erantzunak lagunarekin.

2.2 A ze lan-taldea!

Zer esan du Josuk ikasle hauei buruz? Entzun bideoa eta bitartean, identifikatu bakoitzak esan duena. Adostu erantzunak lagunarekin.

Zer esan dute?	AINARA	INES	IKER
Ez dauka fundamenturik			
Itsusia da, baina jatorra			
Motza da			
Sekula ez da etortzen klasera			
Galdera xelebreek egiten ditu			

3- IKUSI ONDOREN

3.1. Jarri arreta hizkuntzan

Jarri binaka, eta azpimarratu haserrea adierazten duten esapideak. Hemen dituzu bideoaren bi pasarte. Batean Amaia dago haserre. Bestean, liburutegiko erabiltzailea.

Haserrea adierazteko esapideak:
Ixo!
Ez zaitetz ergela izan!
Isilduko al zarete behingoz?
Nahikoa da!

Egin behar dena adierazteko:
Lanean hasi BEHAR dugu
Hemen isilik egon BEHAR da

	<p>AMAIA.— Ainara, zer? JOSU.— Ba, ba,... Ainara itsusia da! AMAIA.—Nahikoa da, Josu. Erotu egin zara, ala? JOSU.— Ez daukate fundamenturik, Amaia. Horrela taldeko lana aspergarria izango da. AMAIA.— Guk jarriko dugu gatza eta piperra. JOSU.— Horiekin? Ufffff! AMAIA.— Bai... Eta ez zaitetz ergela izan, Josu, ez ergela eta ez matxista. JOSU.— Ainara itsusia da! AMAIA.— Berriz? JOSU.— Bale, bale, jatorra da bai... Baina, ez dakit; bueno, gure taldea oso eskasa da!</p>
	<p>LIBURUTEGIKO ERABILTZAILEA.— Isilduko al zarete behingoz? AMAIA.— Bai, barkatu! JOSU.— A zer jenioa! AMAIA.— Ez, arrazoi du: hona lanera etorri gara, ez berriketan egitera... JOSU.— Ados, barkatu. Baina non daude besteak? AMAIA.— Etorriko dira, lasai. JOSU.— Bai, baina lanean hasi behar dugu... Uf! LIBURUTEGIKO ERABILTZAILEA.— Ixo! Bestela, onena duzue kanpora ateratzea!!</p>

Orain alderatu erantzunak bikoteka. Eta ondoren, erantzun galdera hauei.

- Nor haserretu da norekin?
- Zergatik haserretu da?

3.2 Nahikoa da!

Binaka irakurri elkarrizketak eta erabaki non dauden. Denak **isilik egoteko tokiak** dira. Beraz, haserretu egin zarete molestatzen ari direlako. Prestatu bien artean erantzuna.

ELKARRIZKETAK	Non daude?	Haserrea adierazteko erantzuna
<ul style="list-style-type: none"> - Hemen da. - Gainera gure ondoan jarri nahiko du. - Ez utzi ba.... jarri txamarra ondoko eserlekuan. 		<i>Ez da posible! Nahikoa da, ezta? Hemen isilik egon behar da.</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Uf, eskerrak aurkitu zaitut! - Bai, bai. - Sartzeko ilara eta gero ilunpean ezin aurkitu nire tokia. 		
<ul style="list-style-type: none"> - Zenbat denbora daramagu zain? Orubete? - Gutxi gorabehera. - Eta ez al diogu ezer esango? - Bai. Utzi niri. Aizu! Aizu! Ez alde egin. Noiz da gure txanda? 		
<ul style="list-style-type: none"> - Ene!! eskukoa itzaltzea ahaztu egin zait. - Joka hasten bada, ikusiko duzu. Norbaitek kargu hartuko dizu. - Oso dei gutxi jasotzen ditut. Ui! hara! Norbait deika! 		
<ul style="list-style-type: none"> - Ba eztarriko minez nabil. - Hobe duzu eztulka ez hastea. - Saiatuko naiz. Gozoki bat ekarri dut badaezpada ere. 		

Ondoren, elkarrizketak eta erantzunak ahoz besteen aurrean antzetzatu.

Erabaki denen artean: Nork eman du haserre-itxurarik handiena?